



Arartekoaren gomendioa, 2014ko martxoaren 12koa. Beraren bidez, Arrankudiagako Udalari gomendatzen dio salaketa bati erantzun diezaiola. Salaketa hori Arbide industrialdean hondakinak biltegitratzeko eta kudeatzeko jardueran ingurumeneko legeria betetzeari buruzkoa zen.

Aurrekariak

1. Pertsona batek Arartekoarengana jo du, administrazioak ingurumena kontrolatzeko ez duela jardun jakinarazteko, (...) enpresak Arrankudiagako Arbide auzoan egiten dituen jarduerengatik egindako salaketan.

Zehazki, esan du enpresa horrek metalezko hondakinak birziklatzeko eta baloratzeko jardura egiten duela 1998ko amaieraz geroztik, baina ez dauzkala jardura hori egiteko behar diren hirigintzako eta ingurumeneko baimenak. Gainera, esan du prozesu horretan material erradioaktiboaren erabileraren kontrola ez dela ziurtatu.

Erreklamazio egileak esan du enpresa pabilioi itxi batean eta estali gabeko beste espazio ireki batean dagoela. Estali gabeko lur-zati horretan txatarra gordetzen da, segurtasun neurriak betetzen ez dituzten altueretaraino. Gainera, enpresak berea ez den lursail mugakide bat erabiltzen du materialak eta ibilgailuak biltegitratzeko eta gordetzeko. Lursail hori jardura nagusiaren zabalkuntza gisa erabiltzen da, inolako baimenik gabe.

Erreklamazio egileak aditzera eman duenez, egitate horiek Arrankudiagako Udalari salatu dizkio. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko ikuskapen zerbitzuari posta elektronikoz aurkeztutako salaketa erantsi du. Beraren kopia Arrankudiagako Udalari bidali zitzaion 2013ko urtarrilaren 31n. Salaketaren xede nagusia industria-jardura horren arauketa eskatzea zen. Bestalde, erreklamazio egileak jardura honetarako behar diren neurri zuzentzaileak betetzeko eskatu du, enpresaren kanpoaldean materiala uzteari dagokionez eta material erradioaktiboaren kontrolari dagokionez. Era berean, salatu du materiala lur-zati mugakide batean uztea ez dagoela baimenduta.

Erreklamazio egileak adierazi digunez, gerora ez du informazio gehiagorik jaso egin diren administrazio kontroleko jarduketari buruz.



Horregatik, Arartekoaren esku hartzea eskatu du, udalari edo, bestela, administrazio publiko eskudunari ingurumeneko legeria betearaz dezala eskatzeko.

2. Erreklamazio hau izapidetzeko onartu genuen, eta Arrankudiagako Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailari informazioa eskatu genien kearen sustatzaileak aurkeztutako ingurumen-salaketaarekin egindako izapidetzeari buruz.

Arrankudiagako Udalaren kasuan, jarduera honek funtzionatzeko dauzkan ingurumeneko eta hirigintzako lizentziei buruzko informazioa eta jarduera egiteko ezarritako neurri zuzentzaileei buruzko informazioa eskatu dugu. Halaber, jardueraren ingurumen eta hirigintza legezkotasuna betetzen den jakiteko ezarritako neurriei buruzko informazioa eskatu dugu, baita salaketa horien ondorioena ere.

Arrankudiagako Udalak txosten bat bidali zigun erantzun modura, 2013ko ekainekoa. Bertan, industria-jarduera horren hirigintzako egoeraren berri eman zigun. Enpresa Arrankudiagako Arbide industrialdean dago, Arrankudiagako plangintzako Arau Subsidiarioek mugatutako SAPUI 1 lurzoru urbanizagarriaren barruan. Lurzoru horretan ez da hirigintzako garapen egokia egin, denbora luzea igaro den arren. Udalak azaldu digu hirigintzako arazoengatik eta arazo judizialengatik ezin izan duela ordura arte lurzoru industrialeko eremu hori garatu. Zehazki, Justiziako Auzitegi Nagusiaren 2011ko ekainaren 30eko epaia aipatu zuten. Epaia horrek Arbideko industria-sektorean aplikatu beharreko hirigintzako zehaztapenak bertan behera utzi zituen. Horren ondorioz, jarduerak gaur egun ez dauka lizentziarik. Halere, jarduerak plangintzan ezarritako erabilera industrialak betetzen ditu. Udalaren txostenak dioenez, jarduera hori ezin da kaltegarritzat jo inguruko bizilagunentzat. Izan ere, enpresak frogatu du, ingurumen ziurtagirien bidez, jarduera kaltegabea dela. Era berean, enpresak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren baimena dauka arriskutsuak ez diren hondakinak kudeatzeko, zehazki, metalezko hondakinak (burdinazkoak edo ez) biltzeko, jasotzeko, biltegitratzeko, sailkatzeko, prentsatzeko eta zizailatzeko.

Nolanahi ere, udal txostenean ez da informaziorik ematen jarduera lur-zati mugakide bateraino zabaltzearen ondorioz salatu diren gai zehatzen gainean kexagileari eman zaion erantzunaz.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak erreklamazio egileak aurkeztutako salaketarekin egindako izapideak jakinarazi

dizkigu. Hondakinen kudeaketa jarduerari dagokionez, hondakinen inguruko araudiak agintzen du hondakinak kudeatzeko instalazioek autonomia-erkidegoaren ingurumen organoaren baimena behar dutela. Kasu honetan, ingurumen organo horrek enpresari baimena eman zion bere instalazioetan arriskutsuak ez diren hondakinak kudeatzeko 2004ko abenduan. Bestalde, erreklamazio egileak eskatutako ingurumen informazioari bidali zitzaion erantzuna jakinarazi ziguten. Erantzun horretan, ingurumen organoak azaltzen du, Ingurumena babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren terminoetan, ingurumenean eta osasunean kalteak egin ditzaketen jarduera sailkatuek administrazio lizentzia eduki behar dutela edo aldez aurretik jakinarazi behar direla. Hondakinak biltegitratzeko, balorizatze edo desagerrarazteko instalazioen kasuan, 3/1998 Legeak aurreikusten du sailkatutako jardueren lizentzia behar dutela (II.A eranskinaren 10. idatz-zatia). Lege horrek udalei ematen dizkie jarduerak kontrolatzeko, ikuskatzeko eta zehatzeko eskumenak. 3/1998 Legearen 65. artikuluan ere arautzen da udalak jardun egin behar duela lizentziarik ez daukaten jardueren aurrean, jarduerak ixteraino, beharrezkoa bada. Hori dela bide, ondorioztatzen du jarduera sailkatutako jardueraren lizentziaren pean egiten dela bermatzeko behar diren neurri guztiak hartu behar dituen Arrankudiagako Udala dela. Ingurumen Sailak azaldu du instalazio horrek erradiazio ionizatzaileak detektatzeko arkua daukala.

3. Hori dena jakinarazi zion interesdunari. Interesduna halere ez zegoen ados, administrazio publikoek ez zutelako jardueraren funtzionamendua kontrolatzen eta ikuskatzen. Batetik, errepikatu zuen ez dagoela jarduera martxan jarri ahal izateko administrazio baimenik, ezta jardueraren funtzionamendu esparrua finkatzen duen jarduera lizentziarik ere. Kontrol falta hori ezin da beste ingurumen-ziurtagiri batzuekin ordezkatu. Nolanahi ere, enpresak bere eguneroko jarduera egiteko instalazioaren alboko lurak erabiltzearen inguruko salaketa errepikatu du erreklamazio egileak.

Gogoetak

- 1.- **Xedea.** Gure esku hartzearen xedea Arrankudiagako Udalaren jarduna aztertzea da, Arbide auzoko (...) enpresaren instalazioen barruan industria-jardueraren funtzionamenduaren kontrolari eta ikuskapenari dagokienez eta kanpoko lurzati bat materialak biltegitratzeko erabiltzeari dagokionez.

Erreklamazio egileak ingurumeneko kontrola egin beharra dagoela azaldu du, industriako jarduera horri administrazio lizentzia egokia exijitzeko, eta horrelako jarduera gogaikarriei exijitu beharreko neurri zuzentzaile guztiak bete ditzala

exijitzeko (txatarra modu seguruan biltzeaz eta material erradioaktiboen kontrolaz ari da). Gainera, adierazi du jardueraren ondoko lur-zati batean materialen biltegitratze zona baten zabalkuntzan esku hartu behar dela.

- 2.- **Aurkeztutako salaketei erantzuteko betebeharra.** Lehenik eta behin, hirigintzako eta ingurumeneko araudia urratzeagatik aurkeztutako salaketan aurrean bete beharreko izapidea jakinarazi behar dugu.

Zentzu horretan, administrazio izapidetzea behar dute aurkeztutako salaketek eta erreklamazioak (jardueraren ikuskapen eskaera egiten duena, araudia betetzen duen egiaztatzeke).

Udal horri bidalitako jakinarazpen guztiak, gertakari jakin batzuk jorratu eta ingurumen edo hirigintza kontrolari lotutako instalazioen edo jardueren ez-betetzea salatzen dutenak, salaketatzat jo behar dira eta dagokion organoari helarazi, izapidetu daitezten.

Salaketak, hirigintza eta ingurumen legezkotasunaren babeserako arloan ekintza publikoa baliatzerakoan, administrazio espediente baten izapidea ekarri behar du, hirigintza edota ingurumen arloko legeekin bat etorriz eta Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko abenduaren 26ko 30/1992 Legean xedatutako arauari jarraiki.

Ildo horretan, salatutako alderdiak baloratu ondoren, organo eskudunak dagokion espedientea abiarazi edo ez aintzat hartu behar du edo, bestela, eskatzailearen uzia ez onartu. Edonola ere, ekintza publikoaren erabilerak alde interesatuei esku hartzea artxibatu izanaren berri eman beharra dakar, kasu bakoitzean dagokion ekintzak eta errekurtsioak erabili ahal izateko. Horrela bada, kontuan hartu beharra dago Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 34. artikulua zera xedatzen duela: *“Organo eskudunak jardunbidea irekiko duen edo ez eta, hala badagokio, jardunbide horri amaiera emango dion ebazpena jakinaraziko dio salatzaileari, honek horretarako eskubidea du-eta”*

Aurkeztutako salaketak administrazio garrantzia daukaten zenbait kontu azaltzen ditu. Batetik, industria-jarduera hori erregulatzeko eskatzen da. Bestalde, erreklamazio egileak jarduera honetarako behar diren neurri zuzentzaileak betetzeko eskatu du, pabilioiaren kanpoaldean materiala uzteari dagokionez eta material erradioaktiboen kontrolari dagokionez. Era berean, salatu du material biltegi bat dagoela, lur-zati mugakide batean, eta hori ez dagoela baimenduta.

Halere, erakunde honi iritsi zaion informazioaren arabera, ez da udal jarduketarik ez administrazio espedienterik egin salatutako gertaerak egiaztatzeko.

3. Administrazioaren esku hartzea industria-jardueraren aurretiazko kontrolean.

Arrankudiagako Udalak azaldu duenez, jarduera horrek oraindik ez dauzka administrazio lizentzia egokiak. Udalaren txostenak ez du zehazten jarduera horrek hirigintzako lizentzia egokiak dauzkan, kasu honetan industria-instalazio hori eraikitzeko (pabilioiaren eraikuntza, materialen kanpo biltegirako erabileraren baimena). Ingurumeneko lizentzien existentzia ere ez da aipatzen, kasu honetan burdinazko hondakinak biltegiratzeko eta balorizatzeko instalazioaren jarduera lizentzia, eta neurri zuzentzaile egokiak.

Udalak bakarrik azaltzen du enpresak kalitate, osasun, segurtasun, ingurumenaren babes eta gizarte erantzukizuneko arauak betetzearen zenbait ziurtagiri dauzkala, erakunde pribatu batek auditatuta.

Kalitate eta kudeaketa arauak betetzeari buruzko ziurtagiri horiek izan dezaketen balioa gorabehera, erakunde pribatu batek emandako ziurtagiriaren irizpideak eta parametroak ez dira hirigintzako eta ingurumeneko legeriak jasotzen dituen berberak.

Aipatutako ingurumen ziurtagiriak, gainera, ez du jardueraren sustatzailea salbuesten eragozpenak edo pertsonentzako arriskuak sortu ditzaketen jarduera sailkatuei hirigintzako eta ingurumeneko legeriak ezartzen dizkien legezko betebeharrak bete beharretik.

Betiere, administrazio publikoek jardueren funtzionamendua ikuskatu eta ingurumenaren aldetik kontrolatu behar dituzte, horretarako eskumena eta ahalmen publikoa dituzten neurrian. Ezin diote horri uko egin edo erakunde pribatuen eskutan utzi.

Sailkatutako jarduerak ingurumen arloko legedira egokitzeko eta horren kontrola eskatzeko botere publikoek egin behar dituzten jarduerak ez dira hautazkoak. Interes orokorra defendatzeko eta legedi horrek eskatzen dituen betebeharrak betearazten direla bermatzeko antolamendu juridikoak ematen dizkien eskumen publiko horiek ordena publikoko kontua dira.

Argi dago mota horretako jarduera industrialei araudi tekniko-juridiko egokirik aplikatu ezean, jarduera industrialaren titularrek negozioa egiteko duten interes partikularraren eta ingurumena zaintzeko zein inguruan bizi diren herritarrei

isurketa kutsagarriak ekiditeko interes orokorraren arteko gatazka sor daitekeela.

4. **Eraikuntza obretarako eta hirigintzako erabileretarako hirigintzako lizentziak.** Obren edo erabileren sustatzailea eraikuntza obren hirigintzako lizentzien eta euren aldaketen araubideari lotuta dago, obrak egin baino lehen, Lurraren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 207 eta 210. artikuluetan ezarritako terminoetan.

Baldintza horietan hirigintzako lizentzia behar dute industria-instalazioen eraikuntzarako eta aldaketarako obrek, isurien pilaketak eta materialen biltegitratzeak, eta lurrari ematen zaizkion erabileren aldaketak.

Jabeen eta obren sustatzaileen eginbehar horiek toki administrazioek kontrolatzen dituzte. LHLk, 204. artikuluan, ezarri du udalei dagokiela hirigintzako legezketasuna betetzen dela ziurtatzea. Zehazki, hauxe jaso da bigarren idatz-zatian:

Titulu honetan araututako ahalzale baliatzea utziezina da. Ondorio horretarako, agintariak eta funtzionarioak ahal horiez baliatzeko ezarritako prozedurak hasi eta izapidetzera behartuta daude, kasuan kasu emandako epeen barruan. Betebehar hori ez betetzeak diziplina-erantzukizuna sortuko du.

Hurrenkera honetan, aintzat hartu behar da administrazio eta ikuskapen botereen gauzatzeak, hirigintzako legezketasunaren babesak, urratutako ordena berrezartzeak eta arau-hausteak zigortzeak barne hartzen duten izaera xedaezina eta utziezina.

Kasu honetan, industria-sektore honetarako indarreko arau subsidiarioetan jasotako arauak bertan behera uzteak edo zehaztaper horien gerorako garapenik ez egoteak ez dute inola ere udala salbuesten indarrean dagoen hirigintzako legeria exijitzeko eta betearazteko daukan betebeharretik. Bereziki, industrialdean egindako jarduketa berriak aipatu behar ditugu: kanpoko lur-zati mugakidean materialak pilatzea eta biltegitratzea, erreklamazio egileak salatu dituenak. Udalak ez du jarduketarik egin horretarako lizentzia dagoen jakiteko eta hirigintzako legezketasuna berrezartzeko.

5. - **Ingurumenean eragina daukaten jarduera sailkatuen funtzionamendurako lizentziak.** Bestalde, ingurumenaren kontrola egiteko ingurumenerako egokia dela justifikatzen duen derrigorrezko prestakuntza-titulu administratiboa atera behar da jarduera abian jarri aurretik. Halaber, ingurumenaren kontrola ez da baimen horretara mugatzen, izan ere, behar bezala garatzeko segimendua egin

behar zaio eta emaitza jakinak eskatu behar zaizkio aurrez xedatutako ingurumen kalitaterako helburuei dagokienez.

Kasu honetan, Ingurumena babesteko Euskal Autonomia Erkidegoko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 55.1. artikulua xedatzen duenez, sailkatutako jarduerak administrazio lizentzia behar dute edo aldez aurretik jakinarazi behar dira abian jarri ahal izateko.

Aipatutako arau horrek xedatzen du baimen bikoitza behar dela: bata, ingurumen-kalitate egokia bermatuko duten neurri zuzentzaileak ezartzen dituen, eta bestea, sustatzaileari jakinaraztea, neurri horiek benetan betetzen direla bermatzen duena. 3/1998 Legearen 61.2 artikuluan azaltzen denez, sailkatutako jardura lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileak ezarrita eta instalazioak gaituta, jardura hasi ahal izateko aldez aurretikako jakinarazpenaren araubidea bete beharko da.

Gogoratu behar dugu, 65. artikulua arabera, alkateak jakiten badu jardura batek nahitaezko lizentzia eduki gabe edo aldez aurretik jakinarazi gabe funtzionatzen duela, titularrari agindu behar diola egoera erregulariza dezala, gehienez sei hilabeteko epean, bidezkoak diren zehapenak gorabehera. Hala egiten ez badu, edo jardura ezin bada legeztatu, *"itxi egingo da, lehenik interesdunari entzunaldia emanda"*.

Kasu honetan, erreklamazio egileak salaketak egin dituen arren, Arrankudiagako Udalak ez du esku hartu jardura hori erregularizatzeko. Udal txostenean azaltzen da *"jarduerak oraindik ez daukala lizentziarik"*, baina jardura horrek ingurumeneko ziurtagiriak dauzkala baino ez digu jakinarazi.

Zentzu horretan esan behar dugu toki erakundeak inola ere ezin direla inhibitu hirigintzako eta ingurumeneko legezkotasunaren aurkako egoeren aurrean. Beharrezko administrazio-baimenik ez duten jardueren kasuan, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian mantentzen den irizpidea da klandestinitzat jo behar direla lizentziarik ez duten jarduerak. Erakunde honen ustez zuzenbidearen arabera udal agintaritzak jardura horiek ixtea jardura ingurumenaren babesari buruzko 3/1998 Legean xedatutako prozedurari jarraiki legeztatu bitartean.

- 6- Neurri zuzentzaileak betetzearen kontrola eta ikuskapena.** Lizentzia egokiak eduki beharra gorabehera, eragozpenak sor ditzaketen jardueren funtzionamendua baino lehen eta jardura egiten den bitartean ezarritako neurri zuzentzaileak betearazi behar ditu udalak.



Kasu honetan, hondakinak kanpoan biltegitratzea sektoreko araudiarekin bat datorren (zarataren kontrola, atmosferako emisioak eta ingurumeneko gainerako exijentziak) ikuskatu behar duen organo eskuduna udala da. Jarduera aldatzen denean ere esku hartu behar du, adibidez, jarduera lur-zati mugakide batera zabaltzen denean.

Berriro ere esan behar dugu sailkatutako jarduerak ingurumen arloko legedira egokitzeko eta horren kontrola eskatzeko botere publikoek egin behar dituzten jarduerak ez direla hautazkoak. Ahalmen publiko horiek betetzea ordena publikoko kontua da. Antolamendu juridikoak esleitzen dio lan hori udalari, interes orokorra defendatzeko.

Garrantzitsua da aipatzea neurri zuzentzaileetan xedatutako mugak gainditzeak betebeharrak hau dakarrela: udalak dagokion ingurumen arloko ikuskapen eta kontrol prozedura abian jarri behar du, Ingurumena Babesteko Euskal Autonomia Erkidegoko 3/1998 Lege Orokorraren 64. artikuluan ezarritakoarekin bat eginez.

Modu berean, azpimarratu behar da udalak ingurumenaren arloan dituen eskumenen arabera ez dela nahikoa eskatzea jarduera ingurumeneko araudira egokitu dezala. Administrazioak egiaztatzen badu neurri zuzentzaileetan ezarritako mugak gainditu direla, noizean behin gertatzen den zerbait bada ere, dagokion zigortzeko espedientea abian jartzeko betebeharrak dauka, Ingurumena Babesteko Euskal Autonomia Erkidegoko 3/1998 Lege Orokorraren 106. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraiki.

Ordena publikorako eta ingurumenerako kaltegarriak diren egoerak daudenean tokiko erakundeek ezin dute arazotik aldentu eta pertsona edo ondasunei kalteak eragin arte esperoan geratu, eta ezin dute, ezta ere, espedientea atzeratu lokaleko erantzuleek jarduera legeztatuko duten esperantzan. Ezinbestekoa da udalak arrisku egoera amaitzeko esku hartu dezala eta beharrezko neurri zuzentzaileak har ditzala edo, bestela, arduradunei eurei zuzenean agindu diezaiela hori egin dezaten.

Horrenbestez, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan xedatutakoari jarraiki, honako gomendioa egiten dugu:



Gomendioa, 2014ko martxoaren 12koa, Arrankudiagako Udalari:

- Industria-jarduera honek hirigintzako eta ingurumeneko araudia urratzeagatik aurkeztu diren salaketekin izapide egokiak egitea, administrazio lizentzia egokiak exijituz.
- Bestalde, honelako jarduera gogaikarriei dagozkien neurri zuzentzaileak betearazi behar ditu, txatarra segurtasunez pilatzeko eta material erradioaktiboak kontrolatzeko. Era berean, materialak biltegitratzeko zona jardueraren mugakide den lur-zati batera zabaltzeari dagokionez esku hartu behar du.
- Arrankudiagako Udalak baldin badaki industria-jarduera horrek lizentzia egokiak eduki gabe funtzionatzen duela, zehapen egokiak jartzeaz gain, alkateak egoera hori erregularizatzeko jardun behar du, EAEko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 65. artikuluan ezarritako moduan.